

LEGE-AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA

SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA

Txosten zk.: IJ-2020/395
Esp. zk.: 2020 02 000000110939

Informe n ° IJ-2020/395
Exp. N ° 2020 02 000000110939

LEGEZKOTASUN-TXOSTENA: FORU-DEKRETU ARAUEMAILEAREN PROIEKTUA. HONEN BIDEZ, NEURRI OSAGARRI BATZUK EZARTZEN DIRA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN, COVID-19AREN LARRIALDI SANITARIOAREN ONDORIOZ.

INFORME DE LEGALIDAD SOBRE EL PROYECTO DE DECRETO FORAL NORMATIVO DE MEDIDAS COMPLEMENTARIAS EN EL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO DERIVADAS DE LA EMERGENCIA SANITARIA COVID-19.

Txosten hau nahitaezkoa eta ez-lotesleada, eta ematen da bete beharrez 42. artikuluan xedatzen duena Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoaren Erregelamendua, eta 15. artikuluan xedatzen duena Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura. Artikulu horien arabera, Lege Aholkularitzako Zerbitzuari dagokio Foru Aldundiak edo Ahaldu Nagusiak onetsi behar dituen xedapen orokorrak egiteko prozesuak koordinatzea eta arauen kalitatea ikuskatzea, baita xedapen horien legezkotasunaren barne-kontrola egitea ere.

El presente informe, que tiene carácter preceptivo pero no vinculante, se emite en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 42 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 86/2016, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de estructura orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, y en el artículo 15 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, según los cuales corresponde a este Servicio de Asesoría Jurídica la coordinación y supervisión de la calidad normativa y el control interno de la legalidad de las disposiciones de carácter general que deban ser aprobadas por la Diputación Foral o por el Diputado o Diputada General

Bertan ezarritakoa betez, hona sinatzen duenak ematen duen

En su cumplimiento, quien suscribe tiene el honor de emitir el siguiente



TXOSTENA

1) Aurrekariak

a) Txosten-eskabidearen data eta datuak.

2020ko maiatzaren 7an, Ogasun eta Finantza Sailak alta eman zion 2020 02 000000110939 zenbakiko administrazio-espeditentari, goiburuan adierazitako foru-dekretu arauemailearen proiektua izapidetzeko.

Arauz ezarritako izapideak egin ondoren, maiatzaren 14an txosten hau egiteko espeditentea EKIN aplikazioaren bidez jaso zen Lege Aholkularitzako Zerbitzuan.

Xedapen honen xedea da foru-araudia egokitzea COVID-19ari aurre egiteko ezarri diren neurri osagarrietako batzuetara, zeinak arestian onetsi baitira lurralde erkidearen esparruan apirilaren 21ko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez.

Aipatutako Errege Lege Dekretuaren bidez, erantzuna eman nahi zaie COVID-19k eragindako ezohiko inguruabar ekonomiko eta sozialen iraunkortasunari eta sakontasunari, Zehazki, neurri fiskalei dagokienez, material sanitarioaren hornidura modu arin eta eraginkorrean egin dadin, hau ezartzen da: 2020ko uztailaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa ehuneko zero izango da Europar Batasunaren barruan halako ondasunak eman, inportatu eta eskuratzean baldin eta hartzaileak entitate publikoak, irabazi asmorik gabekoak eta ospitaleak badira.

INFORME

1) Antecedentes

a) Fecha y datos de la solicitud de informe.

Con fecha 7 de mayo de 2020, el Departamento de Hacienda y Finanzas procede al alta del expediente administrativo n.º 2020 02 000000110939, para la tramitación del proyecto de decreto foral normativo mencionado en el encabezamiento.

Realizados los trámites que resultan de aplicación, el 14 de mayo se recibe en la Asesoría Jurídica, vía electrónica EKIN, el expediente para emitir el presente informe

La presente disposición tiene por objeto adaptar la normativa foral a algunas de las medidas complementarias para hacer frente al COVID-19, que recientemente se han aprobado en el ámbito de Territorio Común, mediante el Real Decreto-ley 15/2020, de 21 de abril.

Mediante dicho Real Decreto-ley, se pretende dar respuesta a la persistencia y profundización de las circunstancias económicas y sociales excepcionales provocadas por el COVID-19. Concretamente, en lo que respecta a las medidas fiscales, y para permitir que el suministro de material sanitario se realice de forma rápida y efectiva, se establece hasta el 31 de julio de 2020, un tipo impositivo del Impuesto sobre el Valor Añadido del cero por ciento aplicable a las entregas interiores, importaciones y adquisiciones intracomunitarias de este tipo de bienes cuyos destinatarios sean entidades públicas, sin ánimo de lucro y centros hospitalarios.



Horrez gainera, aldaketak egiten dira balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuaren hiruhileko kuotaren ordainketa zatikatuetan, 2020ko zergaldian deklaraturako alarma-egoeraren ondorioz.

Bestalde, kontuan hartuta konfinamenduaren ondorioz handitu dela produktu kulturalen eta herritarren informaziorako produktuen eskaria, liburu, egunkari eta aldizkari digitalak errazago eskuratzeko, ehuneko 4ra jaitsiko da liburu, egunkari eta aldizkari digitalei aplikatu beharreko zerga-tasa; hala, ezabatu egiten da liburu fisikoaren eta liburu digitalaren zerga-tasen arteko aldea.

Azkenik, enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen araubidea malgutzeko, ezabatu egiten da balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari uko egiteko hiru urteko nahitaezkoa lotura, eta araubide horiek aplikatu ahal izango dira berriro ere 2021ean, baldin eta haien aplikaziorako arau-baldintzak betetzen badira.

Xedapenak egitura hau dauka: hiru artikulua ditu, horietako bakoitza adierazitako gaiei buruzkoa; xedapen gehigarri bakarra, non adierazten baita zein den balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari uko egitearen aldi baterako ondorioen muga, 2020ko ekitaldian; eta hiru azken xedapen, hizpide hartzen dutenak indarraldia hastea, Ogasun eta Finantzen foru-diputatua xedapena gara dezan gaitzea eta Batzar Nagusietara geroago berrets dezaten bidaltzea.

Asimismo, se introducen cambios en el cálculo de los pagos fraccionados de la cuota trimestral del régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido como consecuencia del estado de alarma declarado en el período impositivo 2020.

Además, teniendo en cuenta que el confinamiento ha hecho incrementar la demanda de productos culturales y de información de la ciudadanía, para facilitar el acceso a los libros, periódicos y revistas digitales, se reduce al 4 por ciento el tipo impositivo aplicable a los libros, periódicos y revistas digitales eliminando así, la discriminación existente en materia de tipos impositivos entre el libro físico y el libro electrónico.

Finalmente, para flexibilizar el régimen de pymes y autónomos, se elimina la vinculación obligatoria que durante tres años se establece para la renuncia al régimen especial simplificado y al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido, pudiendo volver a aplicar dichos regímenes en el ejercicio 2021, siempre que cumplan los requisitos normativos para su aplicación.

En cuanto a la estructura de la disposición, está compuesta por; tres artículos, relativos cada uno de ellos a las cuestiones señaladas anteriormente; una Disposición Adicional Única en la que se establece la limitación de los efectos temporales de la renuncia al Régimen especial simplificado y al de la agricultura, ganadería y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido en el ejercicio 2020; y tres disposiciones finales relativas a la entrada en vigor, habilitación al Diputado Foral de Hacienda y Finanzas para su desarrollo, y remisión a Juntas Generales para su posterior ratificación.



b) Eskararekin batera aurkeztu den dokumentazioa.

Legezotasunari buruzko txostenaren eskararekin batera, dokumentazio hau aurkeztu da:

- Foru-dekretu arauemailearen proiektuaren behin betiko testua.
- Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena egitetik salbuetsita dagoela justifikatzeko txostena, Zerga Politikako Zerbitzuko buruak 2020ko maiatzaren 7an emana.
- Ogasun eta Finantza Saileko Lege Aholkularitzako Zerbitzuaren txosten juridikoa, 2020ko maiatzaren 13koa, zeinean ondorioztatzen baita ez dagoela eragozpen juridikorik txostena egiteko bidali den foru-dekretu arauemailea izapidetzeko.

2) Eskumena

a) Arloaren gaineko eskumena

Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak hau ezartzen du: «Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala denean, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen eremuan burutuko da».

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 41.1 artikulua hau xedatzen du: «Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko zerga-alorreko harremanak tradiziozko foruetako ekonomia-itun edo hitzarmenen bidez bideratuko dira». Artikulu beraren 2. apartatuaren a) letran hau ezartzen da:

b) Documentación presentada junto con la solicitud.

Junto con la solicitud de informe de legalidad ha sido aportada la siguiente documentación:

- Texto definitivo del proyecto de decreto foral normativo
- Informe justificativo de la exención del informe de evaluación previa del impacto en función del género, emitido el 7 de mayo de 2020, por la jefa del Servicio de Política Fiscal
- Informe jurídico del Servicio de la Asesoría Jurídica del Departamento de Hacienda y Finanzas, emitido el día 13 de mayo de 2020, que concluye no encontrar reparo de orden jurídico para la tramitación del decreto foral normativo remitido a informe

2) Competencia

a) Competencia sobre la materia

La Disposición adicional primera de la Constitución Española establece que “La Constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales. La actualización general de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía.”

El artículo 41.1 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco dispone que “Las relaciones de orden tributario entre el Estado y el País Vasco vendrán reguladas mediante el sistema tradicional de Concierto económico o Convenios”. Y el mismo artículo en su apartado 2.a) establece que “Las instituciones



«Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuako zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso ditzan arauak eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzanei loturik. Ekonomia-ituna lege bidez onartuko da».

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, zeinaren bidez onesten baita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko indarrean dagoen Ekonomia Ituna, hau adierazten du: «Lurralde historikoetako erakunde eskudunek -bakoitzak bere lurraldean- zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena izango dute» (1. Bat artikulua).

Bere aldetik, aipatutako Ekonomia Itunaren 26. artikulua ezartzen du balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundua dela eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formal berberen mende egongo dela. Aurrekotik segitzen da ezen, balio erantsiaren gaineko zerga Estatuak ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko direla EAEn.

b) Proposamena egin duen organoaren eta onetsi behar duen organoaren eskumena

1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 11.9 artikulua ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiak eman ahal izango dituela tributuei buruzko foru-dekretu arauemaileak baldin haien xede bakarra bada Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzea, noiz eta, Ekonomia

competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma. El Concierto se aprobará por ley.”

La Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el vigente Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, señala que “*Las instituciones competentes de los territorios históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, su régimen tributario*” (Artículo 1. Uno).

Por su parte el artículo 26 del citado concierto económico establece que el Impuesto sobre el Valor Añadido, es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. De lo anterior se desprende que en la exacción del Impuesto sobre el Valor Añadido se aplicará las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas por el Estado.

b) Competencia del órgano proponente y del órgano para su aprobación

El artículo 11.9 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, previene que la Diputación Foral podrá dictar Decretos Forales Normativos en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la legislación del Territorio Histórico de



Itunean xedatutakoaren arabera, Lurralde Historiko horretan indarrean egon behar baitute araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak. Horrez gainera, ezartzen du apartatu horretan aipatutako foru-dekretu arauemaileen onespeneren berri eman behar zaiela Batzar Nagusiei, haiek berrets ditzaten.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak hau ezartzen du bere 8. artikuluan (“Zergen arloko foru-dekretu arauemaileak”):

«1. Foru Aldundiak ondoko kasuan eman ahal izango ditu zergei buruzko foru dekretu arauemaileak: helburu bakarra Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzea denean, baldin eta Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Lurralde Historikoan erregimen erkideko lurraldean dauden funtsezko eta erazko arau berberak izan behar badira aginduzko.

2. Era berean, Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, premiazko arrazoiak direla medio eman ahal izango ditu foru dekretu arauemaileak, zergei buruzko arauen bat ezarri edo egokitu behar bada.

Horrela emaniko foru dekretuak sendesteko jakinaraziko zaizkie Batzar Nagusiei».

Bestalde, 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikulua foru-diputatuei dagozkien eginkizunak zerrendatzen ditu. Eginkizunotako bat da proposatzea, batetik, beren saileko gaiei buruzko foru-arauen aurreproiektuak, zeinak, behin Foru Aldundiak onetsi ondoren, bidaliko baitira Batzar

Bizkaia, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común. Añade que de la aprobación de los Decretos Forales Normativos a que se refiere el presente apartado se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación

La Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia establece en su artículo 8, titulado «Decretos Forales Normativos en materia tributaria:

“1. La Diputación Foral podrá dictar disposiciones normativas con rango de Norma Foral en materia tributaria denominadas Decretos Forales Normativos en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la legislación del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

2. Así mismo la Diputación Foral, a propuesta del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, podrá dictar Decretos Forales Normativos, por razones de urgencia, y siempre que convenga establecer o adaptar normas tributarias.

De los Decretos Forales así dictados se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación.”

Por su parte el artículo 39 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, enumera las funciones que corresponden a los Diputados Forales entre las que se encuentran proponer en materias de su Departamento, para su aprobación por la Diputación Foral, los Anteproyectos de las Normas Forales, que posteriormente



Nagusietara, behin betiko onets ditzaten, eta bestetik, beren sailak berezkoak dituzten gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen diputatuari dagokio arlo honetako arauak egiteko ekimena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onetsi behar baitu foru-dekretu arauemailea, eta, ondoren, Batzar Nagusiei helarazi behar zaie, xedapena berrets dezaten.

3) Proposatutako arauaren maila eta dokumentuaren kalitate teknikoak

a) 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 11.9 artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakora egokitzea

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 11.9 artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak eman ahal izango ditu foru-arauaren maila duten, tributuen arloko xedapen arauemaileak, foru-dekretu arauemaile deritzenak, bai Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikatu behar direnean araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak, bai premiazko arrazoiak direla medio tributuen arloko neurriak hartu behar direnean. Hala emandako foru-

se remitirán a las Juntas Generales para su aprobación definitiva, así como los proyectos de Decreto Foral en las materias propias de su Departamento.

En consecuencia, la iniciativa normativa en esta materia corresponde al Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, en tanto que la aprobación del Decreto Foral Normativo se atribuye al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, debiendo darse cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación de la disposición.

3) Rango de la norma propuesta y calidad técnica del documento

a) Adecuación a lo dispuesto en el artículo 11.9 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero y artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria de Bizkaia

De acuerdo con lo establecido por el artículo 11.9 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, la Diputación Foral podrá dictar disposiciones normativas con rango de Norma Foral en materia tributaria, denominadas Decretos Forales Normativos tanto en el supuesto de que de conformidad con el Concierto Económico deban aplicarse en el Territorio de Bizkaia las mismas normas sustantivas y formales que en territorio común, como en el caso de que existan razones de urgencia para la adopción de medidas tributarias. De los Decretos



dekretuen berri eman beharko zaie Batzar Nagusiei, berrets ditzaten.

11. artikulua aipatzen dituen bi kasuak azaltzen dira txostena egin zaion proiektuan. Hala, batetik, foru-dekretuaren proiektuak apirilaren 21ko 15/2020 Errege Lege Dekretuan agindutako aldaketetara egokitu nahi ditu balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion aurreikuspenak, eta bestetik, aldaketok presazko izaera dute.

b) Proposatutako testua egokitzea Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko erabakiaren bidez onetsitako araugintza-teknikari buruzko gidalerroetara

Foru-dekretu arauemailearen proiektuak araudi erkideko tributu itundu bati eragiten dionez, proposatutako testua neurri handian mugatzen da lurralde erkidean onetsitakoa erreproduzitzera; beraz, esan daiteke proposatutako testua bat datorrela, orokorrean, Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako araugintza-teknikari buruzko gidalerroekin.

4) Ekimena urteko arau-planera egokitzea

Ez da beharrezkoa, xedapena delako, hots, foru-dekretu arauemailea, eta bere izateko arrazoia da Bizkaiko Lurralde Historikoko araudia egokitu beharra, noiz eta, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, Lurralde Historikoan indarrean egon behar baitute araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak.

Forales así dictados se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación

En el proyecto sometido a informe se dan los dos supuestos a que se refiere el artículo 11, toda vez que el proyecto de Decreto Foral tiene por objeto adaptar las previsiones relativas al Impuesto sobre el Valor Añadido a las modificaciones introducidas Real Decreto-ley 15/2020, de 21 de abril, y, por otra parte, dichas modificaciones tienen a su vez un carácter urgente.

b) Adecuación del texto propuesto a las Directrices de técnica normativa aprobadas por Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 4 de julio de 2017.

Si bien por afectar el proyecto de Decreto Foral Normativo a un tributo concertado de normativa común, en gran medida el texto propuesto se limita a reproducir el aprobado en territorio común, se puede decir que el texto propuesto se ajusta en términos generales a las Directrices de técnica normativa aprobadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

4) Conformidad de la iniciativa con el Plan Anual Normativo

No procede, por tratarse de una disposición, proyecto de decreto foral normativo, cuya razón de ser se encuentra en la necesidad de adaptar la normativa del Territorio Histórico de Bizkaia cuando, de acuerdo con el Concerto Económico, deben regir en este Territorio las mismas normas sustantivas y formales que en territorio común.



Kasu horiek guztiak aipagai ditu 4.2 artikuluan urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura. Hau ezartzen du:

«2. Eskumena duen organoak urteko arau-planean jasota ez dagoen proposamen arauemaile bat proposatzen badu, ekimena sustatu duen administrazio-unitateak edo sailak erregulazio horren urgentzia edo beharrezkotasuna justifikatu beharko du ekimenari hasiera emateko ebazpen-proposamenari buruzko txostenean edo, bestela, xedapena egiteko prozedurari hasiera emateko erabaki-proposamenari buruzko txostenean. Sail sustatzaileak hasteko ebazpen edo erabaki horren berri eman beharko dio urteko arau-plana kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko ardura duen administrazio-unitateari».

5) Erregulazio onaren printzipioen jarraipena eta printzipiook zioen azalpenean jasotzea

Urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura, 3. artikuluan xedatzen du honako hauek erregulazio onaren printzipioak direla: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea.

Behin azterturik xedapen orokorraren proposamena eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko indarrean dagoen Ekonomia Ituna, zeinak ezartzen baitu balio erantsiaren gaineko araudi erkideko

A estos supuestos hace referencia el artículo 4.2 del Decreto Foral 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia que establece:

“2.- En aquellos casos en que se proponga la aprobación por el órgano competente de una propuesta normativa que no figure en el Plan Anual Normativo, la unidad administrativa o el departamento promotor de la iniciativa deberá justificar la urgencia o el carácter necesario de tal regulación en el correspondiente informe propuesta de resolución de incoación o, en su caso, propuesta de acuerdo de incoación del procedimiento de elaboración. El departamento promotor deberá notificar esta resolución o acuerdo de incoación a la unidad administrativa responsable de la gestión y seguimiento del Plan Anual Normativo.”

5) Seguimiento de los principios de buena regulación y su reflejo en la exposición de motivos

El artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, dispone que son principios de buena regulación los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y celeridad y eficiencia, así como de participación ciudadana y rendición de cuentas.

Examinada la propuesta de disposición de carácter general, y el vigente Concierto Económico con el País vasco que establece que el Impuesto sobre el Valor Añadido es un tributo concertado de



tributu itundua dela eta, beraz, Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberaren mende egongo dela, txosten hau sinatzen duenak uste du beharrezkoa dela txostena egiteko bidalitako xedapena onestea, bat baitator erregulazio onaren printzipioekin. Aldaketaren arrazoiak zehaztuta daude txostena egin dakion bidali den proiektuaren azalpen-zatian.

6) Foru-dekretu arauemailea Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako moduan egiteko prozeduraren jarraipena

Urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura, hau ezartzen du lehenengo xedapen gehigarrian («Foru dekretu arauemaileak»):

«1. Foru dekretu arauemaileen proiektuak xedapen arauemaile orokorrak egiteko prozedura arautzen duen foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

2. Hala ere, batez ere Europako, Estatuako edo autonomia erkidegoko arautegia jasotzeko diren foru dekretu arauemaileen kasuan, ez dira egin beharko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea

3. Edonola ere, foru dekretu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 11. artikulua 9. zenbakian eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8.

normativa común que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, quien suscribe entiende que la aprobación de la disposición remitida a informe es necesaria y responde a los principios de buena regulación. Las razones de la reforma se detallan en la parte expositiva del proyecto remitido a informe.

6) Seguimiento del procedimiento para su elaboración previsto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero

La Disposición Adicional Primera del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, que lleva por título Decretos Forales Normativos establece:

“1. La tramitación de los proyectos de Decretos Forales Normativos se ajustará las previsiones recogidas en la presente disposición normativa para la elaboración de disposiciones normativas de carácter general.

2. No obstante, aquellos Decretos Forales Normativos que fueran esencialmente reproducción de normativa europea, estatal o autonómica, quedarán exentos de los trámites de consulta pública y audiencia e información pública

3. En cualquier caso, lo dispuesto en el presente Decreto Foral no será de aplicación a los proyectos de Decretos Forales Normativos a que se refieren el apartado 9 del artículo 11 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y el artículo 8 de la Norma Foral



artikuluari aipatzen diren foru dekretu arauemaileen proiektuei. Hala ere, kasu horietan, foru dekretu honen 15. artikuluan aipatzen den legezkoatasunari buruzko txostena egin beharko da, bost (5) egun baliouduneko epe luzaezinean».

Transkribatutako xedapenetik segitzen da foru-dekretu arauemailearen proiektuak ez duela bete behar 2/2007 Foru Dekretuan xedatutakoa, salbu eta legezkoatasuna-txosten hau, zeina zerbitzu honek eman behar baitu 5 eguneko epe luzaezinean.

Behar bezala justifikatu da kasu honetan ez dagoela zertan egin genero-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenik, ez baita halakorik aurreikusten baldin xedapenaren helburu bakarra bada Bizkaiko Lurralde Historikoko araudia egokitzea, noiz eta, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, lurralde horretan indarrean egon behar baitute araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak. Inguruabar hori betetzen da foru-dekretu arauemaile honetan.

Izan ere, baldintza hori betetzen duten foru-dekretuak ez dira berariaz jasotzen ez Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan, zeinaren bidez jarraibideak ezartzen baitira genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko, zeina aurreikusita baitago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, ez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Hori dela eta, ulertu behar dugu arau horien aplikazio-eremutik kanpo daudela.

Beraz, ez dago eragozpenik jarraitutako

2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, a excepción del informe de legalidad a que se refiere el artículo 15 de este Decreto Foral, que deberá emitirse en el plazo improrrogable de cinco (5) días hábiles.”

De la Disposición transcrita se desprende que la tramitación del proyecto de decreto foral normativo no se encuentra sujeta a lo dispuesto en el Decreto Foral 2/2007, a excepción del presente informe de legalidad que debe emitir este Servicio en el plazo improrrogable de 5 días.

Se ha justificado también, debidamente, la exención en este caso de incorporar el informe de evaluación de impacto de género, el cual no se prevé para aquellas disposiciones cuyo objeto sea exclusivamente la adaptación de la legislación del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concerto Económico deban regir en dicho territorio las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común, tal y como sucede con el decreto foral normativo que nos ocupa.

Y es que, los decretos forales que reúnen esta condición no estén contemplados expresamente ni en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, ni en la Norma 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, por lo que cabe entender que se encuentran fuera de su ámbito de aplicación.

En consecuencia, no hay nada que objetar



prozedura dela-eta

en cuanto al procedimiento seguido

7) Goragoko antolamendu juridikora egokitzea

Goian aipatutako foru-dekretuaren proiektuak betetzen du goiko puntuetan adierazitako araudia eta, bereziki, 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa, bai eta 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Ituna, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Araua eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

8) Aurkeztutako proiektuaren legezotasunari buruzko ondorioa

Goian adierazitako foru-dekretuaren proiektuaren legezotasunari dagokionez, ez dago eragozpenik jartzetik, zuzenbidearen araberakotzat jotzen baita.

Horra nire iritzia, zeina jartzen baitut zuzenbidean esku handiagoa duen besteren mende.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 18ean

7) Adecuación con el ordenamiento jurídico superior

El proyecto de decreto foral arriba mencionado se ajusta a la normativa citada en los apartados anteriores y, en especial, a la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, al Concierto Económico aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, a la Norma Foral 2/2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y al resto de normativa que resulta de aplicación.

8) Conclusión sobre la legalidad del proyecto presentado

Respecto de la legalidad del proyecto de decreto foral arriba mencionado no hay nada que objetar, ni oponer, entendiéndose ajustado a derecho.

Tal es mi parecer, que someto a otro más autorizado en derecho.

En Bilbao, a 18 de mayo de 2020

Sin./Fdo.: AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA - 2020-05-18
LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA-REN LEGE AHOLKULARITZA OROKORREKO LEGELARIA
LETRADO/A ASESORÍA JURÍDICA GENERAL DE SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA